

**ELKARKIDETZA LEHENTASUNEZKO ENPLEGUKO BGAEren PRESTAZIOEN OHAR
TEKNIKOA**

2024ko apirila

HELBURUA

Ohar tekniko honen helburua da Elkarkidetza Lehentasunezko Enpleguko BGAEk (aurrerantzean Elkarkidetza) 2024ko apirilaren 11tik sortzen dituen prestazioak kalkulatzeko oinarriak zehaztea.

OINARRI TEKNIKOAK

1. Hilkortasun-etaulak

Biziarreko prestazioak ezartzeko, hilkortasun-etaulak erabiliko ditu Elkarkidetzak. Taula horiek prestazio berrien kasuan une horretan indarrean daudenak eta estalitako arriskuei hobekien egokitzen zaizkienak izango dira, indarreko araudiak onartzen baditu, betiere.

Adina hilabete osotan zenbatuko da.

Hilabete bakoitzeko $l_{x+m/12}$ urte osoko banaketa uniforme da, eta ondoz ondoko bi urteren artean linealki interpolatzen da, modu honetara:

$$l_{x+m/12} = l_x - m/12(l_x - l_{x+1})$$

Formula horretan, x adina litzateke, eta m , berriz, urte horretan igaro diren hilabeteak.

2. Interes teknikoa

Prestazio berriak ezartzeko, interes-tasa teknikoa erabiliko du Elkarkidetzak. Interes-tasa hori prestazio berrien kasuan une horretan indarrean dagoena izango da.

3. Unisex errenta kalkulatzeko

a. Gizonen eta emakumeen proportzioa

Unisex errenta kalkulatzeko, gizon eta emakumeen ehuneko erabiliko du Elkarkidetzak, prestazioak ezartzeko. Ehuneko hori prestazio berrien kasuan une horretan indarrean dagoena eta estalitako taldearen ezaugarri hobekien egokitzen zaiona izango da.

b. Egoera zibila: ezkonduen proportzioa

Alarguntasunaren pertsona onuradunari bizi artean itzuli beharrekoa ezartzerakoan, ezkondu-proportzioa erabiliko du Elkarkidetzak, erretiro eta ezintasun iraunkorren prestazioak kalkulatzeko. Proportzio hori prestazio berrien kasuan une horretan indarrean dagoena eta estalitako taldearen ezaugarri hobekien egokitzen zaiona izango da.

c. Bi pertsonen adinen arteko aldea

Alarguntasunaren pertsona onuradunari bizi artean itzuli beharrekoa ezartzerakoan, bi pertsonen adinen artean sexuaren arabera dagoen aldea erabiliko du Elkarkidetzak, erretiro eta ezintasun iraunkorren prestazioak kalkulatzeko. Adinen arteko aldea prestazio berrien kasuan une horretan indarrean dagoena eta estalitako taldearen ezaugarri hobekien egokitzen zaiona izango da.

4. Hornidura matematikoa kalkulatzea

a. Pertsona bakoitzaren sexua

Hornidura matematikoa kalkulatzeko, pertsona bakoitzari dagokion taula erabiliko du Elkarkidetzak, biziarteko prestazioak ezartzeko. Taula horiek desberdinak dira sexu bakoitzerako.

b. Pertsona bakoitzaren egoera zibila

Hornidura matematikoa kalkulatzeko, pertsona bakoitzaren egoera zibila erabiliko du Elkarkidetzak, alarguntasunaren pertsona onuradunari bizi artean itzuli beharrekoa ezartzeko.

c. Bi pertsonen adinen arteko alde erreala

Hornidura matematikoa kalkulatzeko, bi pertsonen adinen arteko alde erreala erabiliko du Elkarkidetzak, alarguntasunaren pertsona onuradunari bizi artean itzuli beharrekoa ezartzeko.

Kalkuluei aplikatzen zaizkien oinarri tekniko zehatzak dokumentuari atxikitako eranskin batean jasota datoz.

PRESTAZIOAK

Prestazioa da erretirodunari, ezinduari edo bazkide osoaren alarguntasun-onuradun pertsonari bizirik dagoen bitartean ordaintzen zaion errenta. Titularrek 90 urte betetzen dituzten arte, errentak finantzarioak dira, eta adin horretatik aurrera, berriz, biziartekoak, jarraituak, berehalakoak eta hilerokoak. Halaber, ordainketa bikoitza dute ekainean eta abenduan. Bazkide osoa hiltzean alarguntasuna jasotzeko onuradunik ez balego, prestazioa seme-alaba bakoitzari 25 urte bete arte ematen zaion errenta finantzarioa izango litzateke.

Erretiroduna edo ezindua hilko balitz, alarguntasunaren onuradunak jasoko ditu biziarteko errenta horiek. Kasu horretan, zenbatekoa berbera izango da eta biziarteko iraupena edukiko dute.

UNISEX ERRENTAREN ZENBATEKOA EZARTZEA

Errentak kuantifikatzen diren unean dauden eskubide ekonomikoen (aurrerantzean, EE) arabera ezartzen dira. Kapitalizatutako aurrezpena errenta kalkulatzeko den hilabeteko 1. eguneko likidazio-balioaren arabera kalkulatu da.

1. Unisex erretiro-prestazioa

Erretiro-prestazioa unisex da, eta haren zenbatekoa kalkulatzeko, lehenik erretiro-errenta kalkulatu da. Horretarako, gizona hartzen da 1. pertsonatzat, eta gizonen ehunekoa aplikatzen zaio. Horri erretiro errentaren kalkulua gehitzen zaio, emakumea hartuz 1. pertsonatzat eta emakumeen ehunekoa aplikatuz. Honela ezartzen da:

$$RU = RH * PH + RM * PM$$

Formula horretan:

$$RU = \text{unisex erretiro-errenta}$$

RH = erretiro-errenta gizona hartuta 1. pertsonatzat

PH = gizonen ehunekoa

RM = erretiro-errenta emakumea hartuta 1. pertsonatzat

PM = emakumeen ehunekoa. $PM=1-PH$

1. pertsonatzat gizona nahiz emakumea hartuta ere, erretiro-errentaren zenbatekoa eragiten den unean ezarriko da, modu honetara:

$$R = \frac{\text{Eskubide Ekonomikoa}}{(Atra + a_{temp+temp} p_x * V^{temp} * a_{x+temp} + PC * V^{temp} * (temp p_y * a_{y+temp} - temp p_{x:y} * a_{x+temp:y+temp})) * FS}$$

Formula horretan:

R = erretiro-errenta

Atra = Prestazioen araudian ezarritako eraginkortasunaren arabera ordaindu behar diren hilerokoak.

x = 1. pertsonaren adina errenta kalkulatzeko den egunean.

y = 2. pertsonaren adina lehenengoak x duenean. Halaber, y adina x + dif da, dif izanik bi pertsonen adinen artean dagoen aldea.

x:y = x eta y adinak dituzten bi pertsonen osatutako taldea.

Temp = x adina duen 1. pertsonari 90 urte betetzeko falta zaizkion urteak. Urteak hilabete osotan zenbatuko dira.

x+temp = 1. pertsonak duen adina biziarteko errenta hasten denean (hau da, 90 urte).

y+temp = 2. pertsonak duen adina biziarteko errenta hasten denean (hau da, 90 urte + dif).

a_{temp} = temp denbora-epea irauten duen errenta finantzarioa, bateratua, jarraitua, epealdi-amaieran ordaintzekoa, hilero zatikatua (14 ordainketa).

V^{temp} = temp denbora-epea igaro zenetik izandako eguneraketa finantzarioa.

temp p_x = 1. pertsona x+temp adinera (hau da, 90 urte) bizirik heltzeko probabilitatea.

a_{x+temp} = 1. pertsonaren errenta aktuariala, biziartekoa, bateratua, jarraitua, epealdi-amaieran ordaintzekoa, hilero zatikatua (14 ordainketa), x+temp adina duenetik (hau da, 90 urte).

PC = ezkonduen proportzioa.

$tempPy = 2.$ pertsona $y+temp$ adinera (hau da, 90 urte+dif) bizirik heltzeko probabilitatea.

$a_{y+temp} = 2.$ pertsonaren errenta aktuariala, biziartekoa, bateratua, jarraitua, epealdi-amaieran ordaintzekoa, hilero zatikatua (14 ordainketa), $y+temp$ adina duenetik (hau da, 90 urte+dif dituenetik).

$tempPx:y =$ bi pertsonak $x+temp$ eta $y+temp$ adinetara bizirik heltzeko probabilitatea.

$a_{x+temp:y+temp} =$ errenta aktuariala, biziartekoa, bateratua, jarraitua, epealdi-amaieran ordaintzekoa, hilero zatikatua (14 ordainketa) taldeak $x+temp$ eta $y+temp$ adinak dituenean eta 1. pertsonak 90 urte eta 2. pertsonak 90 urte+dif dituztenean.

$FS = 1 +$ Kaudimen Funtsera bideratutako ehunekoa.

2. Ezintasun iraunkorraren unisex prestazioa

Ezintasun iraunkorraren prestazioa unisex da, eta haren zenbatekoa kalkulatzeko, lehenik ezintasun iraunkorraren errenta kalkulatu da. Horretarako, gizona hartzen da 1. pertsonatzat, eta gizonen ehunekoa aplikatzen zaio. Horri ezintasun iraunkorraren errentaren kalkulua gehitzen zaio, emakumea hartuz 1. pertsonatzat eta emakumeen ehunekoa aplikatuz. Honela ezartzen da:

$$RU = RH * PH + RM * PM$$

Formula horretan:

$RU =$ ezintasun iraunkorraren unisex errenta.

$RH =$ ezintasun iraunkorraren errenta gizona hartuta 1. pertsonatzat

$PH =$ gizonen ehunekoa

$RM =$ ezintasun iraunkorraren errenta emakumea hartuta 1. pertsonatzat

$PM =$ emakumeen ehunekoa. $PM = 1 - PH$

1. pertsonatzat gizona nahiz emakumea hartuta ere, ezintasun iraunkorraren errentaren zenbatekoa eragiten den unean ezarriko da, modu honetara:

$$R = \frac{\text{Eskubide Ekonomikoa}}{(Atra + a_{temp} + tempPx * V^{temp} * a_{x+temp} + PC * V^{temp} * (tempPy * a_{y+temp} - tempPx:y * a_{x+temp:y+temp})) * FS}$$

Formula horretan:

$R =$ ezintasun iraunkorraren errenta.

$Atra =$ Prestazioen araudian ezarritako eraginkortasunaren arabera ordaindu behar diren hilerokoak.

$x =$ 1. pertsonaren adina errenta kalkulatu den egunean.

$y = 2$. pertsonaren adina lehenengoak x duenean. Halaber, y adina $x+dif$ da, dif izanik bi pertsonen adinen artean dagoen aldea.

$x:y = x$ eta y adinak dituzten bi pertsonen osatutako taldea.

$Temp = x$ adina duen 1. pertsonari 90 urte betetzeko falta zaizkion urteak. Urteak hilabete osotan zenbatuko dira.

$x+temp = 1$. pertsonak duen adina biziarteko errenta hasten denean (hau da, 90 urte).

$y+temp = 2$. pertsonak duen adina biziarteko errenta hasten denean (hau da, 90 urte+dif).

$a_{temp} = temp$ denbora-epea irauten duen errenta finantzarioa, bateratua, jarraitua, epealdi-amaieran ordaintzekoa, hilero zatikatua (14 ordainketa).

$V^{temp} = temp$ denbora-epea igaro zenetik izandako eguneraketa finantzarioa.

$tempP_x = 1$. pertsona $x+temp$ adinera (hau da, 90 urte) bizirik heltzeko probabilitatea.

$a_{x+temp} = 1$. pertsonaren errenta aktuariala, biziartekoa, bateratua, jarraitua, epealdi-amaieran ordaintzekoa, hilero zatikatua (14 ordainketa), $x+temp$ adina duenetik (hau da, 90 urte dituenetik).

$PC =$ ezkonduen proportzioa.

$tempP_y = 2$. pertsona $y+temp$ adinera (hau da, 90 urte+dif) bizirik heltzeko probabilitatea.

$a_{y+temp} = 2$. pertsonaren errenta aktuariala, biziartekoa, bateratua, jarraitua, epealdi-amaieran ordaintzekoa, hilero zatikatua (14 ordainketa), $y+temp$ adina duenetik (hau da, 90 urte+dif dituenetik).

$tempP_{x:y} =$ bi pertsonak $x+temp$ eta $y+temp$ adinetara bizirik heltzeko probabilitatea.

$a_{x+temp:y+temp} =$ errenta aktuariala, biziartekoa, bateratua, jarraitua, epealdi-amaieran ordaintzekoa, hilero zatikatua (14 ordainketa) taldeak $x+temp$ eta $y+temp$ adinak dituenetan eta 1. pertsonak 90 urte eta 2. pertsonak 90 urte+dif dituztenean.

$FS = 1 +$ Kaudimen Funtsera bideratutako ehunekoa.

3. Bazkide osoaren unisex alarguntasun-prestazioa

Bazkide osoaren alarguntasun-prestazioa unisex da, eta haren zenbatekoa kalkulatzeko, lehenik bazkide osoaren alarguntasun-errenta kalkulatu da. Horretarako, gizona hartzen da 1. pertsonatzat, eta gizonen ehunekoa aplikatzen zaio. Horri bazkide osoaren alarguntasun-errentaren kalkulua gehitzen zaio, emakumea hartuz 1. pertsonatzat eta emakumeen ehunekoa aplikatuz. Honela ezartzen da:

$$RU = RH * PH + RM * PM$$

Formula horretan:

$RU =$ bazkide osoaren alarguntasun-errenta

RH = bazkide osoaren alarguntasun-errenta gizona hartuta 1. pertsonatzat

PH = gizonen ehunekoa

RM = bazkide osoaren unisex alarguntasun-errenta emakumea hartuta 1. pertsonatzat

PM = emakumeen ehunekoa. $PM=1-PH$

1. pertsonatzat gizona nahiz emakumea hartuta ere, bazkide osoaren alarguntasun-errentaren zenbatekoa eragiten den unean ezarriko da, modu honetara:

$$R = \frac{\text{Eskubide Ekonomikoa}}{(Atra + a_{temp} + temp p_x * V^{temp} * a_{x+temp}) * FS}$$

Formula horretan:

R = alarguntasun-errenta.

Atra = Prestazioen araudian ezarritako eraginkortasunaren arabera ordaindu behar diren hilerokoak.

x = 1. pertsonaren adina errenta kalkulatzeko den egunean.

Temp = x adina duen 1. pertsonari 90 urte betetzeko falta zaizkion urteak. Urteak hilabete osotan zenbatuko dira.

x+temp = 1. pertsonak duen adina biziarteko errenta hasten denean (hau da, 90 urte).

a_{temp} = temp denbora-epea irauten duen errenta finantzarioa, bateratua, jarraitua, epealdi-amaieran ordaintzekoa, hileroko zatikatua (14 ordainketa).

V^{temp} = temp denbora-epea igaro zenetik izandako eguneraketa finantzarioa.

$temp p_x$ = 1. pertsona x+temp adinera (hau da, 90 urte) bizirik heltzeko probabilitatea.

a_{x+temp} = 1. pertsonaren errenta aktuariala, biziartekoa, bateratua, jarraitua, epealdi-amaieran ordaintzekoa, hileroko zatikatua (14 ordainketa), x+temp adina duenetik (hau da, 90 urte dituenetik).

FS = 1+Kaudimen Funtsera bideratutako ehunekoa.

4. Bazkide osoaren zurztasun-prestazioa

Bazkide osoaren zurztasun-prestazioa 25 urtetik beherako seme-alaba bakoitzaren kasuan ezarriko da, prestazioa eragiten den unean bertan. Modu honetara ezartzen da:

$$R = \frac{\text{Eskubide Ekonomikoa}_N}{(Atra + a_{temp}) * FS}$$

Formula horretan:

Eskubide Ekonomikoa_N = seme-alaba bakoitzaren eskubide ekonomikoa, hau da, eskubide ekonomikoa / seme-alaba kopurua.

R = zurtasun-errenta

Atra = Prestazioen araudian ezarritako eraginkortasunaren arabera ordaindu behar diren hilerokoak.

X = seme-alabaren adina errenta kalkulatzeko den egunean.

Temp = x adina duen seme-alabari 25 urte betetzeko falta zaizkion urteak. Urteak hilabete osotan zenbatuko dira.

a_{temp} = temp denbora-epea irausten duen errenta finantzarioa, bateratua, jarraitua, epealdi-amaieran ordaintzekoa, hileroko zatikatua (14 ordainketa).

FS = 1 + Kaudimen Funtsera bideratutako ehunekoa.

HORNIDURA TEKNIKOAK EDO HORNIDURA MATEMATIKOAK

Hornidura matematikoa metodo prospektiboaren bidez kalkulatzeko da, eta kapitalizazioa banakakoa da. Erabiliko den interes-tasa teknikoa, BGAEi buruzko maiatzaren 29ko 92/2007 dekretuko 8. artikuluan ezarritakoa da.

Guztizko hornidura matematikoa kalkulatzeko, bazkide pasiboek eta onuradunek errenta kalkulatzeko den egunean eragin dituzten prestazioen hornidura matematiko guztien batuketara egiten da. Honela ezarriko da:

$$PMT = PM^J + PM^I + PM^V + PM^O + PM^P + PM^C$$

Formula horretan:

PMT = guztizko hornidura matematikoa.

PM^J = erretiro-prestazioaren hornidura matematikoa.

PM^I = ezintasun iraunkorraren prestazioaren hornidura matematikoa.

PM^V = bazkide osoaren alarguntasun-prestazioaren hornidura matematikoa.

PM^O = bazkide osoaren zurtasun-prestazioaren hornidura matematikoa.

PM^P = erretirodunaren edo ezinduen alarguntasun-prestazioaren hornidura matematikoa.

PM^C = erretiroduna edo ezindua hiltzean sortu diren benetako prestazioen hornidura matematikoa, alarguntasuna jasotzeko onuradun ez dagoenean, edo bazkide osoaren alarguna edo umezurtza egiazko ordainketa-epea amaitu baino lehen hiltzean sortu diren benetako prestazioen hornidura matematikoa.

Honela ezarriko dira guztizko hornidura matematikoaren osagaiak:

1. Erretiro-prestazioaren hornidura matematikoa

$$PM^j = \sum_{t=1}^j PM^j = \sum_{t=1}^j R^* (a_{temp+t} p_x^{temp} V^{temp} a_{x+temp+t} + V^{temp} (temp p_y a_{y+temp} - temp p_{x:y} a_{x+temp:y+temp}))$$

j = erretirodunen kopurua.

R = t erretirodunaren errenta.

x = t erretirodunaren adina, errenta kalkulatzeko den egunean.

y = t erretirodunaren alarguntasun-onuradunaren adina errenta kalkulatzeko den egunean.

$x:y$ = x eta y adinak dituzten bi pertsonen osatutako taldea.

$Temp$ = x adina duen t erretirodunari 90 urte betetzeko falta zaizkion urteak. Urteak hilabete osotan zenbatuko dira.

$x+temp$ = t erretirodunak duen adina biziarteko errenta hasten denean (hau da, 90 urte).

$y+temp$ = t erretirodunaren alarguntasun-onuradunaren adina biziarteko errenta hasten denean.

a_{temp} = $temp$ denbora-epea irausten duen errenta finantzarioa, bateratua, jarraitua, epealdi-amaieran ordaintzekoa, hilero zatikatua (14 ordainketa).

V^{temp} = $temp$ denbora-epea igaro zenetik izandako eguneraketa finantzarioa.

$temp p_x$ = t erretiroduna $x+temp$ adinera (hau da, 90 urte) bizirik heltzeko probabilitatea.

a_{x+temp} = t erretirodunaren errenta aktuariala, biziartekoa, bateratua, jarraitua, epealdi-amaieran ordaintzekoa, hilero zatikatua (14 ordainketa), $x+temp$ adina duenetik (hau da, 90 urte dituenetik).

$temp p_y$ = t erretirodunaren onuraduna $y+temp$ adinera bizirik heltzeko probabilitatea.

a_{y+temp} = t erretirodunaren alarguntasun-onuradunaren errenta aktuariala, biziartekoa, bateratua, jarraitua, epealdi-amaieran ordaintzekoa, hilero zatikatua (14 ordainketa), $y+temp$ adina duenetik.

$temp p_{x:y}$ = bi pertsonak $x+temp$ eta $y+temp$ adinetara bizirik heltzeko probabilitatea.

$a_{x+temp:y+temp}$ = errenta aktuariala, biziartekoa, bateratua, jarraitua, epealdi-amaieran ordaintzekoa, hilero zatikatua (14 ordainketa) taldeak $x+temp$ eta $y+temp$ adinak dituenetan.

2. Ezintasun iraunkorraren prestazioaren hornidura matematikoa

$$PM^I = \sum_{t=1}^j PM^I = \sum_{t=1}^j R^* (a_{temp+t} p_x^{temp} V^{temp} a_{x+temp+t} + V^{temp} (temp p_y a_{y+temp} - temp p_{x:y} a_{x+temp:y+temp}))$$

j = ezinduen kopurua.

R = t ezinduaren errenta.

X = t ezinduaren adina errenta kalkulatzen den egunean.

y = t ezinduaren alarguntasun-onuradunaren adina errenta kalkulatzen den egunean.

$X:y$ = x eta y adinak dituzten bi pertsonen osatutako taldea.

$Temp$ = x adina duen t ezinduari 90 urte betetzeko falta zaizkion urteak. Urteak hilabete osotan zenbatuko dira.

$x+temp$ = t ezindua duen adina biziarteko errenta hasten denean (hau da, 90 urte).

$y+temp$ = t ezinduaren alarguntasun-onuradunaren adina biziarteko errenta hasten denean.

a_{temp} = $temp$ denbora-epea irauten duen errenta finantzarioa, bateratua, jarraitua, epealdi-amaieran ordaintzekoa, hilero zatikatua (14 ordainketa).

V^{temp} = $temp$ denbora-epea igaro zenetik izandako eguneraketa finantzarioa.

$tempP_x$ = t ezindua $x+temp$ adinera (hau da, 90 urte) bizirik heltzeko probabilitatea.

a_{x+temp} = t ezinduaren errenta aktuariala, biziartekoa, bateratua, jarraitua, epealdi-amaieran ordaintzekoa, hilero zatikatua (14 ordainketa), $x+temp$ adina duenetik (hau da, 90 urte dituenetik).

$tempP_y$ = t ezinduaren onuraduna $y+temp$ adinera bizirik heltzeko probabilitatea.

a_{y+temp} = t ezinduaren alarguntasun-onuradunaren errenta aktuariala, biziartekoa, bateratua, jarraitua, epealdi-amaieran ordaintzekoa, hilero zatikatua (14 ordainketa), $y+temp$ adina duenetik.

$tempP_{x:y}$ = bi pertsonak $x+temp$ eta $y+temp$ adinetara bizirik heltzeko probabilitatea.

$a_{x+temp;y+temp}$ = errenta aktuariala, biziartekoa, bateratua, jarraitua, epealdi-amaieran ordaintzekoa, hilero zatikatua (14 ordainketa) taldeak $x+temp$ eta $y+temp$ adinak dituenean.

3. Bazkide osoaren alarguntasun-prestazioaren hornidura matematikoa

$$PM_V = \sum_{t=1}^j PM_V = \sum_{t=1}^j R^* (a_{temp} + tempP_x * V^{temp} * a_{x+temp})$$

j = bazkide osoen alarguntasun-onuradunen kopurua.

R = t bazkide osoaren alarguntasun-onuradunaren errenta.

$X = t$ bazkide osoaren alarguntasun-onuradunaren adina errenta kalkulatzen den egunean.

$Temp = x$ adina duen t bazkide osoaren alarguntasun-onuradunari 90 urte betetzeko falta zaizkion urteak. Urteak hilabete osotan zenbatuko dira.

$x+temp$ = t bazkide osoaren alarguntasun-onuradunaren adina biziarteko errenta hasten denean (hau da, 90 urte).

a_{temp} = $temp$ denbora-epea irauten duen errenta finantzarioa, bateratua, jarraitua, epealdi-amaieran ordaintzekoa, hilero zatikatua (14 ordainketa).

V^{temp} = $temp$ denbora-epea igaro zenetik izandako eguneraketa finantzarioa.

$temp p_x$ = t bazkide osoaren alarguntasun-onuraduna $x+temp$ adinera (hau da, 90 urte) bizirik heltzeko probabilitatea.

a_{x+temp} = t bazkide osoaren alarguntasun-onuradunaren errenta aktuariala, biziartekoa, bateratua, jarraitua, epealdi-amaieran ordaintzekoa, hilero zatikatua (14 ordainketa), $x+temp$ adina duenetik (hau da, 90 urte dituenetik).

4. Bazkide osoaren zurtzasun-prestazioaren hornidura matematikoa

$$PM^O = \sum_{t=1}^j PM^O = \sum_{t=1}^j R * a_{temp}$$

j = bazkide osoen zurtzasun-onuradunen kopurua.

R = t bazkide osoaren zurtzasun-onuradunaren errenta.

$X = t$ bazkide osoaren zurtzasun-onuradunaren adina errenta kalkulatzen den egunean.

$Temp = x$ adina duen t bazkide osoaren zurtzasun-onuradunari 25 urte betetzeko falta zaizkion urteak. Urteak hilabete osotan zenbatuko dira.

5. Erretirodunaren edo ezinduaren alarguntasun-prestazioaren hornidura matematikoa

Egiazko ordainketa-epea da t ezinduaren edo erretirodunaren x adineko alarguntasun-onuradunari geratzen zaizkion urteak erretirodunak edo ezinduak 90 urte beteko zituen unera arte.

a. Prestazioa egiazko ordainketa-epea amaitu aurretik sortzen bada

$$PM_P = \sum_{t=1}^j PM_P = \sum_{t=1}^j R * (a_{temp} + temp p_x * V^{temp} * a_{x+temp})$$

j = erretirodunen edo ezinduen alarguntasun-onuradunen kopurua.

R = t erretirodunaren edo ezinduaren alarguntasun-onuradunaren errenta.

X = t erretirodunaren edo ezinduaren alarguntasun-onuradunaren adina errenta kalkulatzen den egunean.

$Temp$ = t erretirodunaren edo ezinduaren x adineko alarguntasun-onuradunari geratzen zaizkion urteak erretirodunak edo ezinduak 90 urte beteko zituen unera arte. Urteak hilabete osotan zenbatuko dira.

$x+temp$ = t erretirodunaren edo ezinduaren alarguntasun-onuradunaren adina biziarteko errenta hasten denean.

a_{temp} = $temp$ denbora-epea irauten duen errenta finantzarioa, bateratua, jarraitua, epealdi-amaieran ordaintzekoa, hilero zatikatua (14 ordainketa).

V^{temp} = $temp$ denbora-epea igaro zenetik izandako eguneraketa finantzarioa.

$tempP_x$ = t erretirodunaren edo ezinduaren alarguntasun-onuraduna $x+temp$ adinera bizirik heltzeko probabilitatea.

a_{x+temp} = t erretirodunaren edo ezinduaren alarguntasun-onuradunaren errenta aktuariala, biziartekoa, bateratua, jarraitua, epealdi-amaieran ordaintzekoa, hilero zatikatua (14 ordainketa), $x+temp$ adina duenetik.

b. Prestazioa egiazko ordainketa-epea amaitu ondoren sortzen bada

$$PM^P = \sum_{t=1}^j PM^P = \sum_{t=1}^j R * a_x$$

j = erretirodunen edo ezinduen alarguntasun-onuradunen kopurua.

R = t erretirodunaren edo ezinduaren alarguntasun-onuradunaren errenta.

X = t erretirodunaren edo ezinduaren alarguntasun-onuradunaren adina errenta kalkulatzen den egunean.

a_x = t erretirodunaren edo ezinduaren alarguntasun-onuradunaren errenta aktuariala, biziartekoa, bateratua, jarraitua, epealdi-amaieran ordaintzekoa, hilero zatikatua (14 ordainketa), $x+temp$ adina duenetik.

6. Erretiroduna edo ezindua hiltzean sortu diren benetako prestazioen hornidura matematikoa, alarguntasuna jasotzeko onuradunik ez dagoenean, edo bazkide osoaren alarguna edo umezurtza egiazko ordainketa-epea baino lehen hiltzean sortu diren benetako prestazioen hornidura matematikoa.

$$PM^C = \sum_{t=1}^j PM^C = \sum_{t=1}^j R * a_{temp}$$

j = benetako prestazioen onuradunen kopurua.

R = t onuradunaren errenta.

$X=t$ onuradunaren adina errenta kalkulatzen den egunean.

$Temp$ = x adina duen t onuradunari egiazko ordainketa-epea amaitzeko falta zaizkion urteak. Prestazioa sortu bada erretiroduna, ezindua edo bazkide osoaren alarguna hiltzeagatik, x adina duen t onuradunari falta zaizkion urteak erretirodunak, ezinduak edo alargunak 90 urte beteko zituen unera arte. Prestazioa sortu bada bazkide osoaren umezurtza hiltzeagatik, x adina duen t onuradunari falta zaizkion urteak umezurtzak 25 urte beteko zituen unera arte. Urteak hilabete osotan zenbatuko dira.

KAUDIMEN FUNTSA

Hornidura matematikoez gain, bada beste zenbateko gehigarria bat: Kaudimen Funtza, alegia. Elkarkidetzaz etorkizunean izan daitezkeen desbideratzeei aurre egiteko dituen berezko funtsen barnean dago, eta honela ezartzen da:

$$FS = PM * PFS$$

Formula horretan:

FS = Kaudimen Funtza.

PM = hornidura matematikoa.

PFS = Kaudimen Funtsera bideratutako ehunekoa, Gobernu Batzordeak diseinu teknikoaren arabera ezarritakoa (gaur egun, % 5,333).

Ondorioz, Kaudimen Funtza prestazio berri bakoitzarekin eratu behar da. Horregatik, sortutako prestazioak kalkulatzeko, kontuan hartzen da Eskubide Ekonomikoen zati bat Kaudimen Funtsera bideratu behar dela, errentaren zenbatekoa zehazteko atalean azaldu den bezala.

PARTAIDETZA ETEKINETAN

Sortutako prestazioak errenta jarraituak dira, eta etekinetan partaidetza bat esleituko zaie, Prestazioen araudian ezarritakoari jarraikiz eta formula honen arabera:

$$PB = \text{Gutxienekoa}(PR * (R - IT * 1,25); LIM)$$

Formula horretan:

PB = partaidetza etekinetan.

PR = Gobernu Batzordeak diseinu teknikoaren arabera ezarritako banaketa-ehunekoa (gaur egun, % 100).

R = hornidura matematikoen inbertsioari dagokion errentagarritasun positiboa.

IT = errenta kalkulatzeko aplikatutako interes teknikoa.

LIM = Etekinen partaidetzako ehuneko handiena, errenta kalkulatzeko aplikatutako interes teknikoaren arabera.

Errenta kalkulatzeko aplikatutako interes teknikoa	Etekinen partaidetzako muga
% 1,75	% 3,09
% 2,25	% 2,59

2020ko apirilaren 1eko saioan, Gobernu Batzordeak zenbait aldaketa onartu zituen Prestazioaren araudian, eta, horien bidez, etekinetan izandako partaidetza doitzeko mekanismo bat txertatu da, Erakundearen eta eragindako prestazioen iraunkortasun ekonomikoaren arabera eta ondoren azaldutako baldintzetan:

Partaidetza etekinetan: Urtero, ekitaldian lortutako errentagarritasunak pentsioa kalkulatzeko zehaztu den interes-tasa teknikoa gainditu eta % 25ean areagotzen badu, errenta hobetu ahal izango da soberakin horren gainera, betiere, % 3,09 edo % 2,59ko mugarekin, pentsioa kalkulatzeko erabili den interes tasaren arabera, % 1,75 edo % 2,25 hurrenez hurren, hornidura teknikoetarako zuzkidurak egin ostean eta betiere kaudimena % 10 baino handiagoa denean.

Edonola ere, aurreko ekitaldi batean edo batzuetan lortutako errentagarritasuna pentsioa kalkulatzeko ezarri den interes-tasa teknikoa %25ean areagotzera heltzen ez denean, ondorengo ekitaldietan aurrekoetan izandako desfase guztia zuzendu eta normalizatu behar da aurrena, etekinetan partaidetza sortu ahal izateko.

% 3,5era edo % 4ra kalkulatzeko errentek ez dute etekinetako partaidetzarik. Batzar Nagusiak berriazko akordio bidez errebalorizatu ahal izango ditu errenta horiek.

ERANSKINA: OINARRI TEKNIKOAK

2024ko martxoaren 22ko saioan, Gobernu Batzordeak onartutako Prestazioen erregelamenduaren 12. artikulua aldaketak, prestazioen kalkuluei ezarritako oinarri teknikoetan doikuntza bat txertatu du, Erakundearen iraunkortasun ekonomikoa eta konprometitutako prestazioak kontuan izanik eta ondoren azaldutako baldintzatan:

1. Interes teknikoa

Interes teknikoa = % 1,75

2. Unisex errenta kalkulatzeko

a. Gizonen eta emakumeen proportzioa

Gizonen ehunekoa = % 65

Emakumeen ehunekoa = % 35

b. Egoera zibila: ezkonduen proportzioa

Ezkonduen ehunekoa = % 90

c. Bi pertsonen adinen arteko aldea

1. pertsona gizona bada, aldea -3 urtekoa da.

1. pertsona emakumea bada, aldea 3 urtekoa da.

OINARRI TEKNIKOEN ERAGINKORTASUNA

Oinarri teknikoak 2024ko apirilaren 11tik aurrera eskatutako prestazioetan aplikatzen dira.